

# Joku-arauak argitaratzeko

**M**ENDIZALE askok uste du Pyrenaicn artikulua bat argitaratzea oso zaila dela. Eta alde batetik arrazoia dute, hiruhilabetero agertzeak batzutan itxarote-zerrenda luzeak sortezaten ditu eta. Baina ez da egia aldizkari honetan argitaratzea ohiko autoreentzat eta mendizale ospetsuentzat soilik dagoena eskuragarri. Arrazoia ez da hori eta editoriale honetan azaltzera noa zeintzuk diren hartu beharreko pausoak lan on batek (eta ez naiz sartzen orain artikulua baten kalitatea definitzera) argitaratua izateko eta bere autoreari satisfakzioa emateko garantia gehiago izan dezan, eta, era berean, aldizkari honen irakurle animatuei probetxua emateko ere. Bost pauso dira, edozein artikulua-motata moldatzen direnak.

Lehena, ondo hasteko eta alperrik lan ez egiteko, joku-arauak ulertzea da. Aldizkariaren arduradunen lekuan jartzea, beren hautaketa-irizpideak barneratzea, zeina lortu baitaiteke, adibidez, aurreko aleak birpasatuz edo baita idazlaritzarekin kontsultatuz ere. Aztertu beharra dago eskuartean darabilgun ideia edo erdi idatzirik dugun lana onargarria izango denentz eta dugun ala ez ezinbestekoa den materiale guztia. Galdera hauei baietz erantzun ondoren, hartu artikuluari beharrezkoak izango zaizkion denbora eta ahalegin guztiak dedikatzeo erabakia (normalean, hasieran aurreikusten direnak baino gehiago behar izaten dira).

Bigarren pausoa zera da, kontatu nahi denaren esangura definitzea. Esaten dute prozedura on bat dela mezuaren laburpena idaztea hamabi berbatako esaldi bakar batean, aditz batekin gutxienez. Argi pentsatzera behartzen duen ariketa ona da eta idazlanaren gune zentrala identifikatzen lagunduko du. Horren gainean artikuluaen eraikina jasoko da, erabakiz zein izango den azalduko den informazioa eta, batez ere, azalduko ez dena garrantzizkoa ez delako. Urrezko araua zera da, soberan dagoenak molestatu egiten duela.

Hirugarren pausoa idaztea da eta berau arin egin behar da. Denbora larrebarbiltzeko esan nahi du aurreko pausoei dagozkien jarduerak ere egiten ari

direla. Pauso honetan funtsa, izkribu argi eta koherentea idaztean datza, besterik ez. Batzutan lehen ahaleginean ateratzen da ondo, eta kitto. Baina beste batzutan ez da ateratzen lehen borradore bat baino, gero modifikatu egin beharko dena. Horrek ez du ardura. Ez da beharrezkoa ondo idaztea. Egin behar dena da testua idaztea soilik.

Horretarako laugarren pausoa dago, berridaztea, zeinean denbora garrantzizkoa dena zuzentzera dedikatzen baita. Pauso hau arlo bik osotzen dute, "makroargitalpena" edo galdera handiak (¿koherentea da? ¿egokia da? ¿ondo egituratuta dago? ¿luzeegia da?) eta "mikroargitalpena" edo xehetasunak (¿baiezaturik daude datuak? ¿izenak? ¿erratarik bai? ¿sintaxia eta ortografia?).

Azken pausoa, denetarik aspergarriena suertatu daitekeena eta askotan denbora eta laguntza gehien behar izaten duena, lana osotzea izaten da. Batez ere, argazkien asuntua. Gai hau baztertzaila da, zeren argazkirik ezak artikulua-testu on bat erori egin dadin eragin baitezake. (Eta aprobetxatu egiten dut argazkien tratamendu digitalaren arriskua aipatzeko. Izan ere, gertatzen da argazki hauek ordenagailuaren pantailan akasgabe agertu arren ezin izaten direla argitaratu beren erresoluzio-mugengatik). Mapa on bat, argitaratzeko amaitua edo gutxienez aldizkariak irudikatu ahal dezan beharrezkoa den dokumentazio guztia duelarik. Eta gainerako aparteko guztiak: fitxa teknikoak datu praktikoeekin, aipamen kartografikoak eta bibliografikoak, eskerronak, ... eta artikuluaen izenburua bera ere.

Amaituta dago eta prest bidalia izan dadin prozedura elektronikoz, eta abar. Gero komenigarria da noizean behin artikuluaen egoeraz interesatzea, baina ez adoregabatu erantzuna atzeratu egiten bada. Askotan "itxarotea da presazkoa". Erantzuna izan daiteke puntu batzuk berrikusi egin behar direla, xehetasun batzuk osotu, edo testua murriztu, baina zorte apur batekin gertatu daiteke ere artikulua argitaratua izatea eta egindako ahalegin guztiak ontzat eman ahal izatea.

## Las reglas de juego para publicar

**M**UCHOS montañeros piensan que es muy difícil que se les publique un artículo en Pyrenaica. Y en parte tienen razón porque la secuencia de aparición trimestral crea en algunas ocasiones largas listas de espera. Pero no es cierto que la publicación esté sólo al alcance de los autores habituales o de los montañeros famosos. La razón no es esa y en este editorial voy a comentar una serie de pasos que facilitan que un trabajo bueno (y no entro ahora a definir la calidad del artículo) tenga más garantías de ser publicado y de dar así satisfacción a su autor, y por ende, provecho a los animados lectores. Son cinco pasos, adaptables a cualquier tipo de artículos.

El primero, para empezar con buen pie y no trabajar en balde, es comprender las reglas del juego. Situarse en la posición de los responsables de la revista, interiorizar sus criterios de selección, lo que se puede conseguir por ejemplo revisando números anteriores o incluso consultando con la Redacción. Examinar si la idea que se baraja o el trabajo que se tiene ya más o menos escrito, será aceptable y si se dispone ya de todo el material imprescindible. Una vez que se conteste afirmativamente, tomar la decisión de dedicar al artículo todo el tiempo y energías que sean necesarios (normalmente bastantes más de las que se prevén al principio).

El segundo paso consiste en definir el significado de lo que se quiere contar. Suelen decir que un buen procedimiento es escribir un resumen del mensaje en una sola frase de unas doce palabras, con un verbo por lo menos. Es un buen ejercicio que obliga a pensar con claridad y servirá para identificar el núcleo central del trabajo. Sobre él se construirá el edificio del artículo, decidiendo la información que se va a presentar y, sobre todo, la que se va a omitir porque no es relevante. La regla de oro es que lo que sobra, molesta.

El tercer paso es escribir y debe ser rápido. Emplear demasiado tiempo quiere decir que se están haciendo también actividades de los

otros pasos. Aquí se trata solamente de redactar un escrito claro y coherente. A veces sale a la primera y ya está. Pero otras veces es justo un primer borrador que luego habrá que modificar. Eso no importa. No hace falta escribirlo bien. Lo que hay que hacer es simplemente escribirlo.

Para eso está el cuarto paso, que es reescribirlo, dedicando el tiempo a corregir lo que es importante. Son dos aspectos denominados "macroedición" o grandes preguntas (¿es coherente?, ¿es adecuado?, ¿está bien estructurado? ¿es demasiado largo?) y "microedición" o detalles (¿datos comprobados?, ¿nombres?, ¿erratas?, ¿sintaxis y ortografía?).

El último paso, que puede resultar el más tedioso y el que más tiempo y ayudas necesite, es completarlo. Sobre todo el asunto de las fotografías. Es un tema excluyente, cuya ausencia puede hacer caer un buen texto de artículo. (Y aprovecho para comentar el peligro del tratamiento digital de las fotos que pueden parecer impecables en la pantalla del ordenador y sin embargo resultar impúblicables por las limitaciones de su resolución). Un buen mapa, terminado para su publicación o por lo menos con la documentación precisa para su reproducción por la revista. Y el resto de extras: ficha técnica con los datos prácticos, referencias cartográficas y bibliográficas, agradecimientos ... e incluso el título del artículo.

Ya está terminado y listo para ser enviado, por procedimiento electrónico, etc. Incluso puede ser conveniente interesarse periódicamente por él, pero no desmoralizarse si tarda en recibirse contestación. Muchas veces "urge esperar". La respuesta puede ser que haya que revisar puntos, completar detalles, o recortar el texto, pero con un poco de suerte puede ocurrir también que el artículo resulte publicado y se puedan dar por buenos todos los esfuerzos realizados.

Txomin Uriarte